

2. ATALEKO ARIKETA PRAKTIKOAK

1- 8. ikasgaia: Hurrengo Medikamentuen Eragin Kaltegarria ABCDEF, DOTS eta EIDOS sailkapenen arabera sailkatu ezazu:

a) 63 urtetako emakume hipertentsoak batek enalapril 20 mg/egun tratamendua hasten du. Hipotentsioa dela eta, emakumeak aldakaren haustura pairatzen du.

b) Gazte batek sukar erreumatikoaren berragertzea prebenitzeko hilabetero 1,2 milioi unitate Penizilina G benzatina hartzen ditu. Hamargarren hilabetean, penizilinako muskulu barneko azken dosia jaso eta gero, zorabiatu zen, arnas egiteko zailtasunak, sibilantziak, pultsu oso ahula,...agertu ziren. Zer gertatu da? Zer eragin kaltegarri mota litzateke?

2- 10. Ikasgaia: Gell eta Coombs-en Hipersentikortasun Erreakzioei buruzko hurrengo taula bete ezazu:

Hipersentikortasun Mota	Mekanismoa	Eragina	MEK adibidea eta farmakoa
I Mota			
II Mota			
III Mota			
IV Mota			

3- 10. ikasgaia: 2016ko irailean, Dalsy[®]-ren eszipienteen inguruko polemikari buruz, hurrengo erantzuna argitaratu zen:

<https://www.facua.org/es/noticia.php?Id=10709>

Gai honi buruz, hurrengo galderak erantzun:

- Zer da Dalsy[®]? Prospektuan E-110 koloratzaileari buruzko abisurik aipatzen al da?
- Zer esaten du indarreko legeak E-110-ari buruz?
- Ezagutzen al duzu E-110 gehigarria daukan jakirik? Etiketari ohartarazten al da?
- Bilatu ezazu E-110 umeeen portaeran euki dezakeen efektuari buruzko artikulu zientifikoren bat.

4- 11. ikasgaia: Hurrengo elkarrekintza farmakodinamikoak sailkatu itzazu sinergismo edo antagonismo eta mekanismo zuzen edo zeharkakoengatik direnen arabera. Azaldu bere eragin klinikoa.

Elkarrekintza	Sinergismo / Antagonism	Mekanismoa	Eragin klinikoa
β -blokeatzaileak eta β -agonistak			
Lakiozko diuretikoak eta digoxina			
MAO-ren inhibitzaileak eta tiramina			
Warfarina eta antibiotikoak			
Warfarina eta AAS			
H1-antagonista eta alkohola			
AIEE + antihipertentsiboak			

5- 11. ikasgaia: Hurrengo elkarrekintzentzat, zein izango litzateke farmako oinarria eta zein farmako inductore edo inhibitzailea? Ondoriozta ezazu zein izango litzateke elkarrekintzaren eragin klinikoa:

CYP isoentzima	Elkarrekintza	Oinarria	Inductore/inhibitzailea	Eragin klinikoa
CYP2C9				
CYP2C19				
CYP2D6				
CYP2C8 eta CYP3A4				
CYP3A4				

6- 12. Ikasgaia: Hurrengo taula osatu: Jarraibide egokiak gomendatu suszeptibilitatea baldintzatzen duten faktore eta medikamentu hauen eragin kaltegarriak kontuan harturik.

Suszeptibilitatearen jatorria	Adibidea	Farmakoa	Jarraibidea
Adina			
Sexua			
Fisiologiaren asaldura			
Kanpoko faktoreak			
Gaixotasuna			
Genetikoa			

7- 14. gaia: <https://www.drugs.com/pregnancy/> web gunean dagoen informazioa erabiliz, aipatu eizu farmako bakoitza zein FDA kategoriaren barruan dagoen, eta baita ere, zernolako eragin teratogenoa izan dezaketen.

Medikamentua	FDA sailkapena	Eragin teratogenikoa
Ibuprofenoa		
Atorbastatina		
Karbamazepina		